

Bezeroarekiko harremanak:

Covid-19a dela eta, harreman presentziala izan nahi badugu, hainbat neurri hartu behar ditugu; baina hala ere, beste sustapen modu batzuk bilatu ditugu. Bezeroak lortzeko interneteko webgune bat, sare sozialak eta telefonoa erabiliko ditugu, besteak beste.

Horrez gain, gure denda fisikoetan aforo maximoa jarriko dugu dendaren tamainaren arabera.

Jakin bezala, zerbitzu pertsonalizatua arlo garrantzitsu bat dugu. Hau da, bezeroaren jantziak neurri idealak eduki dezan, arropak nahi diren neurrira pertsonalizatzeko aukera eman dugu. Gure webgunearen edo sare sozialen bidez kontaktatu gaitzakezu. Horrez gain, bezeroentzat zenbait jantzi zozketatuko ditugu.

Gure telefono zenbakia: 943 65 12 80 honakoa da eta sare sozialen bidez aurkitu nahi bagaituzte, @ekomienpresa aurkituko gaituzte, instagram, facebook eta twitterren. WhatsApp bidez gurekin komunikatu nahi badute, 648 773 337 telefonora hitz egin beharko digute. Edozein zalantza erantzuteko prest egongo gara.

Gainera, webguneaz ere hornitzen gara. Bertan, gure zerbitzuak eta produktuak ikusteko eta erosteko aukera izango dute ikusgai, eta informazio eta datu gehigarriak, zerbitzu honi probetxu maximoa ateratzeko.

Kanaletan azaldu bezala, hainbat ekintza egingo ditugu, Covid-aren egoera amaitu bezain azkar burutuko ditugunak. Egoera berri honek lagatzen digun heinean, gure zerbitzuak ikusteko ate irekiak eta hainbat azoketan salmahaiak edukiko ditugu.

